



# **Hormako paper horia**

Charlotte Perkins-Gilman  
Itzulpena: Ana Morales



# **Hormako paper horia**

Charlotte Perkins-Gilman

Izenburua: Hormako paper horia.

Jatorrizko izenburua: *The Yellow Wallpaper*.

Lehen edizioa: 2012ko azaroa.



edizio honena **edol!**.



itzulpenarena Ana I. Morales.



hitzostearena

Saioa Ruiz - Amaia Serrano.



azaleko irudiarena Aitziber Alonso

argitaletxea **edol!**

P.K. 618 - 20080 Donostia - Gipuzkoa.

argitaletxeaedo@gmail.com

www.argitaletxeaedo.org

Diseinua: **edol!**

Inprimaketa: Printhaus, SL. 48004 Bilbo.

ISBN: 978-84-940489-0-6

Lege gordailua: BI-1750-2012

# **Hormako paper horia**

Charlotte Perkins-Gilman

Itzulpena:  
Ana I. Morales

Hitzostea:  
Saioa Ruiz - Amaia Serrano



**Xortak**



Oso gutxitan gertatzen da John eta ni beza-lako jende arruntak etxandi zahar bat lortzea uda pasatzeko.

Emadazu etxandi kolonial bat, heredatutako etxalde bat, are etxe sorgindu bat esango nuke... Eta hortxe duzu zorion erromantikoaren gailurra... Baina hori patuari gehiegi eskatzea litzateke!

Eta, hala ere, harro esan dezaket etxe honekin zeozer arraroa gertatzen dela. Bestela, zelan alokatuko lukete hain merke? Eta zergatik egon da hainbeste denboran alokatu barik?

Johnek barre egiten dit, jakina, baina hori espero izatekoa da ezkon bizitzan.

John praktikoa da, muturreraino. Ez dauka pazientziarik fede kontuetarako, higuin izugarria die sineskeriei, eta argi eta garbi mespretxatzen du sentitu, ikusi eta zenbakietara ekarri ezin diren gauzez hitz egitea.

John medikua da eta, beharbada horregatik (hori ez nioke inori esango, jakina, baina hau paper hila baino ez da, eta arindu ederra nire gogoarentzat), beharbada, diot, horrexegatik ez naiz arinago sendatzen.

Pentsa, ez du sinesten gaixorik nagoela!

Eta, zer egingo duzu horren aurrean?

Izen oneko mediku batek ziurtatzen badie lagunei eta senideei benetan ez duzula ezer, depresio nerbioso pasakor bat beste-

rik ez dela —histeriarako joera arin bat—, eta gainera mediku hori zure senarra bada, zer egingo duzu?

Gure neba ere medikua da, izen onekoa bera ere, eta gauza bera dio.

Beraz, fosfatoak edo fosfitoak, edo direna direlakoak, hartzen ditut, eta tonikoak, eta bidaiak egiten ditut, eta airea hartzen dut, eta ariketa fisikoa egiten dut, eta sendatzen naizen arte guztiz debekatuta daukat «lan egitea».

Ni neu ez nator bat ideia horiekin.

Nik uste dut lan egokiak, eta bizitasunak, eta aldaketak, on egingo lidaketela.

Baina, zer egingo duzu?

Debekuak debeku, bolada batean idazten jarraitu nuen; baina neka-neka egin da uzten nau... Isil-ostuka ibili behar izate hori, edo, bestela, aurkako jarrera gogorra jasan beharra...

Batzuetan iruditzen zait nire egoeran, debeku gutxiago eta inguruan jende gehiago eta estimulu gehiago izango banitu... Baina Johnek dio egin dezakedan gauzarik okerrena nire egoeraz pentsatzea dela, eta aitortzen dut txarto geratzen naizela beti.

Beraz, albora utziko dut hori eta etxeaz mintzatuko naiz.

Zer-nolako leku ederra! Bakarturik dago, errepidetik aski apartatuta, herritik bost



bat kilometrora. Liburuetako toki ingeles horiek gogorarazten dizkit, landarezko hesiak, eta hormak, eta giltzaz ixten diren burdin ateak dituelako, eta etxetxo bakan pilo bat, lorezaintzat eta jendearentzat.

Lorategi delizios bat dago! Egundo ez dut holako lorategirik ikusi: handia eta itzaltsua, ezpelez hesitutako bidezidorrekin; eta mahats parrek estalitako pergola luzeak ere baditu, eta bankuak, haien itzalpean jesartzeko.

Berrotegiak ere bazeuden, baina hondatuta daude denak orain.

Auzi legalen bat egon zen, uste dut, oinordekoen eta oinordekokideen konturen bat; edozer dela ere, lekuak urteak eman ditu hutsik.

Horrek zapuztu egiten ditu mamuei buruz hitz egiteko aukera guztiak, baina berdin zait: etxeak zerbait bitxia dauka, sentitu egiten dut.

Johni ere esan nion, ilargi gau batean, baina esan zidan sentitzen nuena haize korronte bat zela, eta leihoa itxi zuen.

Batzuetan arrazoi barik haserretzen naiz Johnekin. Lehen ez nintzen hain sentibera, ziur naiz. Uste dut nire nerbioen gaixotasun honengatik dela.

Baina Johnek dio, horrela sentitzen bainaiz, eduki beharreko autokontrola galdu-

ko dudala; beraz, eginahalak egiten ditut neure burua kontrolatzeko, haren aurrean behintzat, eta horrek asko nekatzen nau.

Gure gela ez zait batere gustatzen. Nik beheko pisuko bat nahi nuen, arkupe-  
ra ematen zuena eta leihoa arrosaz bete-  
ta zeukana, eta antzinako gortina loredun  
polit horiek! Baina Johnek entzun ere ez  
zuen egin nahi izan.

Esan zuen leiho bakarra zegoela eta ez  
zegoela tokirik bi oherako, eta handik gertu  
ez zegoela beste logelarik berak hartzeko.

Oso arduratsua eta maitetsua da, eta ia ez  
dit uzten zirkinik egiten jarraibide berezi-  
rik eman gabe.

Zehaztuta daukat zelan eman eguneko  
ordu bakoitza; ardura guztiak kentzen diz-  
kit, eta esker txarreko pertsona ziztrin bat  
sentitzen naiz hori gehiago ez estimatzea-  
gatik.

Esan zidan neugatik bakarrik etorri gare-  
la hona, atsedean hutsean egon behar nin-  
tzela eta ahalik eta gehien egurastu. «Ari-  
keta fisikoa egitea indarren menpe dago,  
maitea; —esan zidan— eta jatea janguraren  
menpe neurri batean; airea, berriz, eten-  
gabe arnastu daiteke». Beraz, umeen gela  
hartu genuen, goiko pisuan.

Gela handi eta zabala da, etxearen azale-  
ra osokoa ia, leihoak ditu alde guztietara,

eta airea eta argia barra-barra. Hasieran umeen logela zen, gero jolas gela eta gimnasioa, esango nuke; izan ere, leihoetan burdinazko barrak ditu umeengatik-eta, eta hormetan uztaiak eta gauzak daude.

Hormako pinturaren eta paperaren egoera ikusita, mutikoen eskola bat ematen du. Paperari puska handiak kendu dizkiote nire oheburuaren inguru osoan, eskuaz hel naitekeen bezain urrun, eta gelaren bestaldean ere, beheko partean, kenduta dago zati handi batean. Nire bizi guztian ez dut paper itsusiagorik ikusi.

Zabal-zabal egiten den azalore itxurako marrazki bitxi horietako bat, egin litekeen arte bekatu ororen erruduna.

Haren arrastoari jarraitu gura izanez gero, begia nahasteko bezain monotonoa da, baina aldi berean norbera etengabe zirikatu eta aztertzeraz bultzatzeko bezain nabarmena; eta uhin zalantzarri babo horien bideari tarte batez jarraitu diozunean, bat-batean uhinok bere buruaz beste egiten dute, neurriz kanpoko angeluetan amiltzen dira, beren burua suntsitzen dute sekula ikusi gabeko kontraesanetan.

Kolorea nardagarria da, gomitagarria ia; lizuntzen hasitako hori zikin bat, eguzki argiaren joan-etorri geldoak bitxi maiztu duena.

Laranja motel baina bizia da toki batzuetan, sufre kolore gaixotia beste batzuetan.

Ez da harritzekoa umeek gorrotatu izana! Nik ere gorrotoa hartuko nioke, gela honetan luzaroan bizi beharko banintz.

Hortxe dator John, ezkutatu egin behar dut hau. Gorroto du nik letra bakar bat ere idaztea.



Aste bi eman ditugu hemen, eta lehen egun hartaz geroztik ez dut gogorik izan idazteko.

Leihoaren ondoan nago orain, umeen gela jasanezin honetan, eta ezerk ez dit eragozten nahi beste idaztea, indar faltak ez bada.

John kanpoan egoten da egun osoan, eta batzuetan gauez ere bai, kasu larriak dituenean.

Eskerrak nire kasua ez den larria!

Baina nerbio arazo hauek ikaragarri deprimenteak dira.

Johnek ez daki benetan zenbat sufritzen dudan. Berak badaki ez dagoela sufritzeko arrazoirik eta horrekin nahikoa dauka.

Nerbioak baino ez dira, jakina. Baina ze nekeza egiten zaidan nire betebeharrak inola ere ez betetzea!

Nire asmoa zen Johni asko laguntzea, atsedena eta sostengua ematea, eta begira

orain, dagoeneko karga bat naiz, beste ezer baino gehiago!

Ez luke inork sinetsiko zenbat kostatzen zaidan egitea gai naizen apurra; janzteia eta atsegin egotea, eta zerbitzariari aginduak ematea.

Eskerrak Mary hain ona den gure ume-  
txoarekin. Halako umetxo goxoa!

Baina ezin naiz umetxoarekin egon, oso urduri jartzen nau.

Pentsatzen dut John ez dela bere bizi guztian urduri egon. Halako barreak egiten ditu nire lepotik, hormako paper hau dela eta!

Hasieran gelako papera aldatzeko asmoa zeukan, baina gero esan zuen kontuari gaina hartzen uzten ari nintzela, eta nerbioetako gaixoarentzat ez dagoela gauza okerragorik halako fantasiei amore ematea baino.

Esan zidan, papera aldatu ondoren, ohearen armazoi astuna izango zela, eta gero leihoetako burdinak, eta gero eskaile-  
ra buruko atetxoa, eta abar.

«Ondo dakizu toki hau mesede egiten ari zaizula —esan zuen— eta, benetan, maitea, ez dut gogorik etxea hiru hilabeterako berritzen hasteko».

«Orduan goazen behera» —esan nion—  
«oso gela politak daude hor».

Bere besoetan hartu ninduen eta txoritxo bihotzekoa deitu zidan, eta esan zidan beheko sotoko hormak ere zuritzeko aginduko zuela nik nahi baldin banuen.

Baina arrazoia dauka oheen kontuan eta leihoen kontuan eta gauzetan.

Edonor gustura egoteko moduko logela zabala eta eroso da, eta, jakina, ez dut John deseroso sentiaraziko kapritxo bategatik, hain tuntuna ez naiz.

Gustua hartzen hasi naiz gela handi honi, paper nazkagarri horri salbu.

Leihotik lorategia ikusten dut: glorieta sakon gerizpetsu horiek, modaz pasatutako loreen iskanbila, zuhaixkak eta arbola adabegitsuak.

Beste leiho batetik badia eta etxalde honen kai pribatu txikia ikusten ditut, bista maitagarria. Badago bide eder gerizpetsu bat, etxetik kairaino jaisten dena. Beti iruditzen zait jendea ikusten dudala bidezidor eta pergola ugari horietan, baina Johnek ohartarazi dit ez diodala irudimenari amore eman behar inondik inora. Berak dio nire irudimen handia eta ipuinak sortzeko ohitura ikusita, nire nerbio ahuleziak era guztietako fantasia txoroak sortzera joko duela, eta borondatea eta zentzua erabili behar ditudala joera hori menderatzeko. Beraz, horretan ahalegintzen naiz.

Batzuetan uste dut, apur bat idazteko bezain ondo banengo, ideien presioa arindu, eta atsedena hartuko nukeela.

Baina saiatzen naizenean, asko nekatzen naiz.

Ez daukat inor nire lanaz aholkurik edo laguntasunik emateko, eta jausi egiten zait bihotza horregatik. Johnek dio, ondo osatzen naizenean, Henry lehengusuari eta Juliari esango diegula bisitan etortzeko, baina orain errazago ipiniko lizkidakeela suziriak burkoaren azpian, jende bizigarri hori nire ingurura ekarri baino.

Nahiago nuke arinago osatuko banintz!

Baina ez dut horretan pentsatu behar. Paper honek begiratzen dit jakingo balu bezala zein eragin gaiztoa daukan nigan!

Badago errepikatzen den zati bat; marrazkia erori egiten da, lepoa hautsi izan balitzaio bezala, eta erraboila itxurako bi begik behetik gora begiratzen dizute.

Sutan jartzen naiz lotsa gabezia eta betierekotasun horrekin. Gora eta beheara eta alboz narras, eta kliskarik ere egiten ez duten begi absurdo horiek toki guztietan. Leku batean paper xafla bi ez datoz guztiz bat, eta begiak, marraren alde banatan, bata bestea baino goraxeago geratu dira, eta horrela doaz marra osoan zehar, gora eta beheara.

Egundo ez dut ikusi halako espresiorik gauza bizigabe batean, eta denok dakigu gauzek zelako espresioa izaten duten! Txikitari esna egoten nintzen ohean, eta ume gehienek jostailu denda batean baino poz eta beldur handiagoa pasatzen nuen horma zuriei eta altzari arruntei begira.

Gogoan dut gure armairu handi zaharretako egurraren begiek zelako keinu atsegina egiten zidaten, eta bazegoen aulki bat, oso lagun sendoa iruditu zitzaidana beti.

Iruditzen zitzaidan, gauzaren batek betizuegi ematen baldin bazuen, aulki horretara jauzi egin eta salbu egongo nintzela.

Gela honetako altzariak ez dira hain txarrak, gehiago da hemen ez dutela ondo ematen, behetik ekarritakoak baitira berez. Pentsatzen dut gela hau jolas gela bihurtu zenean, umeen altzariak aterako zituztela, eta ez da harritzekoa! Sekula ez dut ikusi hemengo umeek egindako barrabaskeriak bezalakorik.

Hormako papera, lehen esan bezala, urratuta dago leku batzuetan, eta itsatsi baino itsatsiago dago! Gogor saiatu beharko ziren altxatzeko, eta gorroto handiz gainera.

Eta zorua ere markatuta, eta urratuta, eta ezpal eginda dago, hormako karea ere zulatuta han-hemenka, eta ohe handi eta astun honek, gelan aurkitu genuen gauza baka-



rrak, gerra bat baino gehiago pasatutakoa ematen du.

Baina ez dit batere ardura... Tira, paperak bai.

Hemen dator Johnen arreba. Oso neska maitagarria da, eta zelan zaintzen nauen! Ez nau idazten harrapatu behar.

Goitik beherako etxekoandre gogotsua da, eta ez du lanbide hoberako guraririk. Ziur naiz uste duela idazteagatik gaixotu naizela!

Baina bera ez dagoenean idatz dezaket, eta leiho hauetatik oso urrundik ikus dezaket etxerantz datorrenean.

Leihoetako batetik errepidea ikusten da, errepide polit, bihurtunetsu, gerizpetua; beste leihotik mendialdea ikusten da. Ondo ederrak horiek ere, zumar handiz eta belusezko larrez beteak.

Hormako paper honetan azpimarratzki moduko bat dago, kolore diferente batean, marratzki bereziki ernegagarri bat, argi jakin batez bakarrik ikus daitekeelako, eta ez oso garbi orduan ere.

Baina maiztuta ez dagoen tokietan eta eguzkiak horrelaxe jotzen duenean... Forma gabeko figura moduko bat ikusten dut, arraroa, zirikatzailea, aurreko marratzki nabarmen txotxolo horren atzetik ostenduta bezala.

Eskaileretan gora dator koinata!



Tira, joan da uztailaren 4a! Mundu guztiak alde egin du eta neka-neka eginda nago. Johnek pentsatu zuen agian on egingo zidala konpainia pixka batek, eta ama, Nellie eta umeak etorri ziren astebete pasatzera.

Jakina, ez dut ezer egin. Jennie ardura-tzen da denaz orain.

Baina berdin-berdin nekatu naiz.

Johnek dio arinago bizkortzen ez banaiz, udazkenean Weir Mitchell doktoarengana bidaliko nauela.

Baina ez dut inondik ere harengana joan gura. Nire lagun bat haren eskuetan egon zen behin, eta dio John eta nire neba bezalakoa dela, are okerragoa!

Gainera, itzelezko esfortzua da haraino joatea.

Iruditzen zait ez duela merezi zirkinik egitea ezertarako ere, eta ikaragarri milika eta kexati bihurtzen ari naiz.

Ez dut ezer behar negarrez hasteko, eta negarretan nago denbora gehiengan.

Jakina, ez Johnen edo beste inoren aurrean, bakarrik nagoenean baino.

Eta orain nahikotxo egoten naiz bakarrik. John herrian geratzen da oso sarri larrialdiak artatzeko, eta Jennie jatorra da eta bakarrik uzten nau hala eskatzen diodanean.

Beraz, lorategian edota bidexka polit horretan pixka bat ibiltzen naiz, arkupean jesartzen naiz arrosen azpian, eta etzanda egoten naiz hemen luzaroan.

Benetan gustua hartzen ari natzaio gelari, hormako papera gorabehera. Beharbada hormako paperagatik.

Hainbesteko buru-lana ematen dit!

Ohetzar mugiezin honetan etzaten naiz (uste dut lurrari josita dagoela) eta marrazkiaren arrastoari jarraitzen diot ordubete inguruan. Gimnasia bezain ona da, benetan diotsut. Hasten naiz, adibidez, behetik, horko beheko izkinan, ukitu gabe dagoen lekutik, eta milagarren aldiz erabakitzen dut zentzugabeko marrazki horren aztar-nari jarraituko diodala bukaeraren batera heldu arte.

Badakit zertxobait irudigintzaren printzipioez, eta badakit gauza honek ez diola jarraitzen inongo erradiazio, edo txandakatze, edo errepikapen, edo simetria arauri, ezta nik sekula entzundako ezelako arauri ere.

Bai, marrazkia paper xafla bakoitzean errepikatzen da; bestela, ez.

Modu batera begiratzen bazaio, paper xafla bakoitza bereizita dago: uhin hanpatuak eta loramenduak —delirium tremensak jotako halako «erromaniko degene-

ratu» bat— tarrapaka doa gora eta behera handigurazko zutabe isolatuetan.

Baina, bestalde, alderik alde ere lotzen dira, eta lerroak zabal-zabalka abiatzen dira horre optikozko uhin zeharkakoe-tan, ziztuan doazen alga kulunkarien mul-tzo baten moduan.

Eta guztia horizontalean ere ikus daite-ke, hala dirudi, behinik behin, eta neure burua akitzen dut norabide horretan zein ordenaren arabera doan bereizteko ahale-ginean.

Gainera, xafla horizontal bat erabili dute goiko ertza egiteko, eta horrek ikaragarri nahasiago egiten du dena.

Gelako toki batean ia ukitu barik dago, eta hor, errainuak ezabatzen direnean eta ilunabarreko eguzkiak bete-betean jotzen dionean, ia-ia erradiazioa ikusten dudala iruditzen zait. Ematen du grotesko amaie-zina erdigune baten inguruan bildu eta buruz behera erortzen dela horrantz, lehen bezain modu aztoragarrian.

Nekatu egiten naiz arrastoari jarraitzen. Uste dut lo kuluxka bat egingo dudala.



Ez dakit zergatik idazten dudan hau.

Ez dut gura.

Ez naiz gai sentitzen.

Eta badakit Johni zentzubakoa irudituko litzaiokeela. Baina moduren batean esan behar dut zer sentitzen eta pentsatzen dudan... Ikaragarritzko arindua da!

Baina ahalegina handiagoa izaten hasi da hartutako arindua baino.

Orain denbora gehiena alferkerian ematen dut, eta luzaroan egoten naiz etzanda.

Johnek dio ez dudala indarrik galdu behar, eta bakailao gibelaren olioia eta toniko mordoa, eta gauzak edanarazten dizkit; garagardoa, eta ardoa, eta haragi gordina aipatu barik.

John maitea! Asko maite nau, eta ezin nau gaixorik ikusi. Lehengoan saiatu nintzen berarekin benetako hizketaldi arrazoizko eta serioa izaten, eta esaten zelan nahiko nukeen gure lehengusu Henry eta Juliari bisita egiten joaten uztea.

Baina esan zidan ez nagoela joateko moduan, eta bertara heldu eta gero ez nintzatekeela jasateko gai izango; eta ez nuen neurere iritzia oso sendo defendatu, negarrez ari bainintzen berbetan amaitu baino lehen.

Gero eta gehiago kostatzen zait garbi pentsatzea. Nerbioen ahulezia hau izango da.

Eta John maiteak besoetan hartu ninduen, eta gora ekarri eta ohean jarri ninduen, eta nire ondoan jesarri eta niri irakurtzen egon zen burua nekatu zitzaidan arte.

Esan zidan bere kutuna eta bere abaroa naizela, eta daukan guztia, eta beragatik zaindu behar dudala neure burua, eta ondo egon.

Esaten du neuk bakarrik lagundu ahal diodala neure buruari egoera honetatik ir-teten, eta borondatea eta autokontrola era-bili behar ditudala eta ez utzi fantasia tun-tunek niri gaina har diezadaten.

Gauza batek behintzat lasaitzen nau, gure umetxoia ondo eta pozik dagoela, eta ez dela umeen gela honetan egon behar, hormako paper gorrotagarri honekin.

Gela guk hartu ez bagenu, ume koitaduak edukiko zuen! Eskerrak ez den halakorik gertatu! Mundua bete urregatik ere ez nioke utziko neure ume bati, txikitxo babesgabe bati, halako gela batean bizitzen.

Ez dut inoiz horrela ikusi, baina, begira, azkenean zortea izan da Johnnek ni hemen jartzea; askoz errazago jasan dezaket nik umetxo batek baino.

Jakina, orain ez diet sekula aipatzen —ez naiz tuntuna—, baina erne-erne dauzkat begiak.

Paper honetan badaude gauza batzuk nik soilik dakizkidanak, eta beste inork inoiz jakingo ez dituenak.

Kanpoko marrazkiaren atzeko irudi lau-sotuak argiagoak dira egunetik egunera.

Beti da irudi bera, baina horietako asko daude.

Eta emakume antzeko bat dabil marrazkiaren atzean, makurtuta eta narras. Ez zait batere gustatzen. Ez dakit, baina... Zera... Bururatu zait... Johnek hemendik betiko aterako banindu!



Oso gaitza da Johnekin nire egoeraz berba egitea; izan ere, hain da jakintsua eta hainbeste maite nau...

Baina bart gauean saiatu egin nintzen.

Ilargi-argitan geunden. Ilargiak gela osoa argitzen du, eguzkiak bezalaxe.

Batzuetan gorroto dut ikustea, hain astiro dator narras, eta beti sartzen da leihoren batetik.

John lo zegoen eta ez nuen esnatu nahi; halandaze, geldi geratu nintzen hormako paper uhintsu horretan ilargi argiari begira-begira, ikaratu nintzen arte.

Atzeko figura xumeak marrazkia astindu egin zuela iruditu zitzaidan, handik irten gura balu bezala.

Astiro altxatu eta papera ukitzera joan nintzen, ea benetan mugitzen zen, eta ohera itzuli nintzenean, John esna zegoen.

«Zer duzu, neskatila? —esan zidan— Zertan zabilta bueltaka? Hoztu egingo zara!».

Pentsatu nuen aukera ona zela hitz egiteko, eta esan nion han ez nintzela hobera egiten ari, eta nahiago nuela handik aterako banindu.

«Baina, laztana! —esan zidan—. Alokairua hiru aste barru amaituko da, zelan joango gara lehenago!».

«Etxeko obrak amaitu barik ditugu, eta oraintxe ezin naiz hiritik joan. Jakina, arriskuan bazeunde, ahalko nuke eta egingo nuke, baina benetan hobeto zaude, laztana, zu konturatu ala ez. Medikua naiz, laztana, eta badakit. Kolorea eta pisua hartzen ari zara, hobeto jaten duzu, askoz ere lasaiago nago».

«Ez dut gramo bat ere hartu —esan nion—; areago, galdu ere egin dut pisua; eta agian hobeto jaten dut gauean, zu hemen zaudenean, baina okerrago jaten dut goizean, zu ez zaudenean!».

«Nire bihotzeko laztantxoa! —esan zidan besarkada handi bat eman ez—». Gaixorik egon gura badu berak, gaixorik egon dadila! Baina orain joan gaitezen lotara, bihar-ko argi orduak hobeto aprobetxatzeko, eta goizean hitz egingo dugu honetaz!».

«Eta ez zara lanera joango?», galdetu nion goibel.

«Baina, zelan geratuko naiz etxean, maitea? Hiru aste gehiago, eta nonbaitera joan-



go gara egun batzuetarako, bidaiatxo polit bat, Jenniek etxea prestatzen digun bitartean. Benetan, maitea, hobeto zaude eta!».

«Gorputzez bai, beharbada, baina...», hasi nintzen, eta bertan gelditu nintzen. John artez jesarri eta serio eta zorrotz begiratu zidan; nik ezin izan nuen beste berberik esan.

«Ene maitea —esan zidan— arren eskatzen dizut, nigatik eta gure umeagatik, eta baita zeuregatik ere, sekula ez uzteko, ezta une batez ere, halako ideiarik zure buruan sartzen! Ez dago gauza arriskitsuagorik, gauza liluragarriagorik, zurea bezalako izaera batentzat. Fantasia faltsu eta txatxu bat da. Ezin al didazu sinetsi, mediku gisa, hala esaten dizudanean?».

Beraz, ez nuen horretaz ezer gehiago esan, jakina, eta handik laster lotara joan ginen. Pentsatu zuen neu lokartu nintzela lehena, baina ez, eta orduak eta orduak eman nituen erabaki ezinik ea aurreko marrazkia eta atzeko marrazkia batera mugitzen ziren ala bakoitza bere aldetik.



Honelako marrazkiek ez daukate hurrenkerarik egun argiz, burla egiten diete legee, eta hori etengabeko ernegua da buru normal batentzat.

Kolorea nahiko nardagarria da berez, eta nahiko badaezpadakoa, eta nahiko sumingarria; marrazkia, berriz, tortura hutsa da.

Uste duzu menderatu duzula, eta bide erdian zaudenean, arrisku-salto bat egi-ten du atzerantz, eta horratx: belarrondo-koa ematen dizu, lurrera botatzen zaitu eta ostikoz jotzen zaitu. Amesgaiztoa bezala-koa da.

Kanpoko marrazkia arabesko loretsua da, onddoak gogoratzen dituen. Imajinatu onddo pozoitsuen kate bat, onddo pozoitsuen segida amaiezin bat garatzen eta kimutzen kiribil infinituetan... Ba holako zerbait da.

Tira, batzuetan behintzat!

Paper honek ezaugarri oso berezi bat dauka, eta antza denez nik bakarrik antze-man diot: argia aldatu ahala bera ere aldatu egiten da.

Eguzkia ekialdeko leihotik sartzen de-  
nean —nik beti bilatzen dut lehen izpi luze,  
zuzen hori—, hain azkar aldatzen da non  
inoiz ezin dudan guztiz sinetsi.

Horregatik egoten naiz beti zelatan.

Ilargi argitan —ilargia dagoenean, gau osoan argitzen du gela— ez nuke esango pa-  
per bera denik.

Gauean, edozelako argiarekin —dela ilu-  
nabarra, nahiz kandela argia, lanpara argia,

eta guztietan okerrena, ilargi argia— barro-  
teak agertzen dira! Kanpoko marrazkian,  
esan nahi dut, eta atzeko emakumea garbi  
baino garbiago ikusten da.

Luzaroan ez nintzen ohartu atzean zer  
ageri zen, azpimarrazki lauso hori, baina  
orain guztiz ziur nago emakume bat dela.

Egun argiz menderatuta dago, geldi. Uste  
dut marrazkiak eusten diola horren geldi.  
Guztiz txundigarria da. Orduak eta orduak  
egoten naiz geldi hari begira.

Orain luzaroan egoten naiz ohean. Joh-  
nek dio on egiten didala, eta ahalik eta lo  
gehien egin behar dudala.

Egia esan, berak sortu zidan lo-kuluxka  
egiteko ohitura, otordu bakoitzaren ostean  
ordubete etzateko esaten baitzidan.

Oso ohitura txarra da, seguru nago, ze,  
ikusten duzu, ez dut lorik egiten.

Eta horrek engainua baino ez dakar, ez  
diedalako esaten itzarrik egoten naizela.  
Bai zera!

Kontua da beldur pixka bat hartzen hasi  
natzaiola Johni.

Batzuetan oso arraro egoten da, eta Je-  
nniek berak ere aurpegiera ulertezina jar-  
tzen du.

Batzuetan bururatzen zait, hipotesi zien-  
tifikiko bat egitearren... Beharbada papera-  
gatik izango dela!

Zelatan egon natzaio Johni, bera kon-  
turatu gabe; sartu izan naiz gelan aitzakia  
inozoekin, eta behin baino gehiagotan zeri  
eta paperari begira harrapatu dut! Eta Je-  
nnie ere bai. Behin Jennie harrapatu nuen  
esku bat paperean jarrita.

Ez zekien gelan nengoenik, eta umil eta  
apal galdetu nionean, ea zertan zebilen pa-  
perarekin, buelta eman zuen lapurretan  
harrapatu banu bezala. Haserre zirudien,  
eta galdetu zidan ea zergatik ikaratzen nuen  
horrela!

Gero esan zuen paperak zikindu egiten  
zuela eta orban horiak aurkitu zituela nire  
eta Johnen arropa guztietan, eta mesedez  
kontu handiagoz ibiltzeko!

Ze txintxoia ematen zuen, e! Baina nik  
badakit marrazkia aztertzen zegoela, eta  
inork ez du haren korapiloa askatuko nik  
baino lehenago, ez horixe!



Orain bizitza askoz ere kitzikagarriagoa da.  
Begira, orain badaukat zeren zain egon, ze-  
ren irrikaz, zeren zelatan. Hobeto jaten dut,  
zinez, eta lehen baino lasaiago nago.

John pozarren dago hobera egiten ari nai-  
zela ikusita! Lehengo egunean irribarre egi-  
nez esan zidan badirudiela loratzen ari nai-  
zela, nire hormako paper hori gorabehera!

Nik ere barre egin nuen. Ez neukan asmorik esateko hormako paperagatik dela: iseka egingo zidan. Beharbada, hemendik atera eta guzti egingo ninduen.

Ez dut joan gura korapilo hau askatu arte. Astebete geratzen zaigu, eta uste dut nahikoa izango dela.



Askoz hobeto nago! Gauez ez dut lo asko egiten, oso interesgarria delako nobedadeak ikustea; baina egunez lo dezente egiten dut.

Egunez nekagarria eta nahasgarria da.

Beti ageri dira kimu berriak onddoan, eta hori kolorearen tonu desberdinak toki guztietan. Ezin dut haien kontua eraman, buru-belarri saiatu naizen arren.

Oso hori arraroa da, paper honena! Bizitzan ikusi ditudan gauza hori guztiak gogorarazten dizkit... Ez gauza politik, loretxoak, adibidez, gauza hori txar nazkagarriak baino.

Baina paperak badauka beste gauza bat ere: usaina! Gelan lehenengoz sartu ginen momentuan sumatu nuen, baina hainbeste aire eta eguzkirekin ez zen hain txarra. Orain lanbroa eta euria izan ditugu aste-betez, eta leihoak zabaldu nahiz ez, usaina hemen dago.

Etxe guztian dabil narras.

Jangelako airean zintzilik aurkitzen dut, egongelan kiribilka, sarreran ezkutatuta, eskaileretan etzanda, nire zain.

Ilean sartzen zait.

Zaldian ibiltzera noanean ere, burua bat-batean jiratu eta ezustean harrapatzen badut, hortxe dago usaina!

Hain da usain bitxia! Orduak eman ditut zeren antzekoa ote den analizatzen.

Ez da txarra... hasieran. Eta oso arina da. Baina, benetan, sekula aurkitu dudan usainik sotilena, iraunkorrena ere bada.

Eguraldi heze honetan izugarria da, gauez esnatzen naiz eta nire gainean dingilizka igartzen dut.

Hasieran aztoratu egiten ninduen. Serio pentsatzen nuen etxeari su ematea, usaina harrapatzeko.

Baina dagoneko ohitu egin naiz. Bururatzten zaidan haren antzeko gauza bakarra paperaren kolorea da! Usain horia.

Oso marka xelebrea dago hormaren behe-behean, zokaloaren gainean. Gela osoaren jira egiten duen marra bat. Altzari guztien atzetik doa, ohearen atzetik izan ezik: orban luze, zuzen, erregularra, horma behin eta berriro igurtzi balute bezala.

Nola egin ote zuten, eta nork, eta zertarako? Buelta, eta buelta, eta buelta... Buel-

ta, eta buelta, eta buelta... Zorabiatu egiten nau!



Azkenean, gauza bat deskubritu dut.

Gauez, zaintzearen zaintzeaz, hainbeste aldatzen denean, azkenean aurkitu egin dut.

Aurreko marrazkia mugitu egiten da... Eta ez da harritzekoa, atzean dagoen emakumeak astindu egiten du eta!

Batzuetan, iruditzen zait hor atzean emakume piloa dagoela, eta, beste batzuetan, bat bakarra dela, eta arin-arin ibiltzen dela narras, eta ibiltzean dena astintzen duela.

Gero, gune oso argietan geldi geratzen da, eta oso gune gerizpetsuetan barroteei heldu eta gogor astintzen ditu.

Eta beste aldera pasatzen ahalegintzen ari da uneoro. Baina inor ez litzateke marrazki horretatik zehar pasatuko, itogarria da eta; uste dut horregatik dauzkala hainbeste buru.

Pasatu egiten dira beste aldera, baina orduan marrazkiak lepoa estutzen die eta buruz behera jartzen ditu, eta begiak zuritu egiten zaizkie!

Norbaitek buru horiek tapatu edo kenduko balitu, ez litzateke inondik ere hainbesterako izango.



Uste dut emakume hori egunez irteten dela!

Eta esango dizut zergatik —gure artean—: ikusi egin dut!

Leiho bakoitzetik ikusten dut!

Emakume bera da, ondo dakit, narras dabilelako beti, eta emakume gehienak egun argiz ez dira narras ibiltzen.

Bidexka luze gerizpetsuan ikusten dut, narras gora eta behera. Mahats parrez estalitako pergola ilun horietan ikusten dut, lorategi osoan zehar narras.

Ikusten dut errepide luze horretan zehar, zuhaitzen pean narras, eta zaldi kotxe bat datorrenean, ezkutatu egiten da masustondoen atzean.

Eta guztiz normala iruditzen zait. Oso umiliagarria izan behar da argi betean norbaitek narras harrapatzea!

Nik neuk beti ixten dut atea giltzaz egun argiz narras nabilenean. Ezin dut gauez egin, badakidalako Johnek segituan zerbait susmatuko lukeela.

Eta John arraro dago orain; ez dut ernegarazi nahi. Nahiago nuke beste logela batera joango balitz! Gainera, ez dut gura nik beste inork ateratzea emakume hori kanpora gauetan.

Askotan pentsatzen egoten naiz, ze ondo leiho guztietatik aldi berean ikustea lortuko banu.



Baina ahalik eta azkarren buelta eman arren, begiratu bakoitzean leiho bakarretik ikus dezaket.

Eta beti ikusten badut ere, agian ni jiratu baino arinago mugi daiteke bera.

Batzuetan begira egon naiz nola urrun-tzen den, narras, zelaietatik, laino baten itzala haize betean baino arinago.



Ai, gaineke marrazki hori kendu ahal izan-go banu! Saiatzeko asmoa daukat, apurka-apurka.

Beste gauza xeble batez konturatu naiz, baina oraingoan ez dut esango! Ez da komeni jendeaz larregi fidatzea.

Bi egun baino ez zaizkit geratzen paper hau kentzeko, eta uste dut John ohartzen hasi dela. Ez zait gustatzen haren begira-kunea.

Behinola entzun nion Jennieri galdera profesional asko egiten niri buruz. Jenniek oso datu onak eman zizkion.

Esan zion lo piloa egiten dudala egunez.

Johnekin badaki ez dudala oso ondo lo egiten gauez, nahiz eta ni geldi-geldi egon!

Denetariko galderak egin zizkidan niri ere, eta oso maitetsu eta goxo-plantak egin zituen.

Niretzat liburu irekia ez balitz bezala!

Dena dela, ez da harrigarria hala jokatzea, paper honen ondoan lo egiten hiru hilabete eman eta gero.

Niri bakarrik interesatzen zait, baina ziur naiz Johni eta Jennieri ere eragin egiten diela, ezkutuan gorde arren.



Biba! Gaur azken eguna da, baina nahikoa dut. John hirian geratuko da gaua pasatzen, eta ez da iluntzera arte etorriko.

Jenniek nirekin lo egin gura zuen... Sorgintxo halakoa! Baina esan diot, duda bakarrik, gau batez hobeto atsedean hartuko dudala bakarrik egonda.

Grazia izan du ateraldiak, ze ez naiz bate-re bakarrik egon! Ilargia azaldu eta koitadu hori batetik bestera narras egiten, eta marrazkia astintzen, hasi bezain laster, ohetik altxatu eta laguntzera joan naiz.

Tira egin dut eta berak astindu egin du, nik astindu eta berak tira, eta eguna argitu baino lehen metroak eta metroak genituen kenduta.

Nire altuerarainoko zinta bat, gelaren bueltaren erdia luze.

Eta eguzkia irten denean eta marrazki nazkagarri hori barreka hasi zaidanean, erabaki dut gaur bukatuko dudala.

Bihar joango gara, eta altzari guztiak behera eramango dituzte, gauzak zeuden moduan uzteko.

Jenniek txundituta begiratu dio hormari, baina nik alai esan diot gauza zital horren mespretxu hutsagatik egin dudala.

Barre egin du, eta esan dit ez zitzaiola axola izango berak egitea, ez naizela nekatu behar.

Zelan igarri zaion oraingoan!

Baina hemen nago, eta nik beste inork ez du ukituko paper hau... Bizirik irten nahi badu!

Ni gelatik ateratzen saiatu da... Begi bistan zegoen! Baina esan diot hain lasai, hutsik eta garbi zegoela orain, uste nuela berriz ere etzango nintzela eta ahalik eta luzeen lo egingo nuela; eta ez esnatzeko ezta afarirako ere, neuk abisatuko nuela itzartzen nintzenean.

Beraz, joan da, eta zerbitzariak joan dira, eta gauzak ere eramán dituzte, eta ez da ezer geratzen lurrari jositako ohetzar hau baino, bere olanazko koltxoiarekin.

Gaur behean egingo dugu lo, eta bihar barkua hartuko dugu etxerako.

Nahiko gustura nago gelan orain, berriz ere hutsik dagoela.

Ene, zelako urratuak egin zituzten ume haiek!

Ohe hau ederto saskilduta dago!

Baina lanari ekin behar diot.

Atea itxi eta giltza leihotik bota dut, aurreko bidera.

Ez dut irten nahi, eta ez dut nahi inor hona sartzerik John etorri arte.

Txunditu egin nahi dut.

Soka bat ekarri dut hona gora Jennie kon-turatu barik. Emakume horrek ateratzea lortzen badu eta alde egiten saiatzen bada, lotu ahal izango dut!

Baina ahaztu egiten zait ez naizela oso go-ra heltzen zerbaiten gainean igo barik!

Eta ohe hau ez da mugitzen!

Saiatu naiz igotzen, eta bultzatzen, gor-putz osoa minberatu arte, eta gero hainbes-te amorratu naiz, non haginka egin diodan izkina batean eta puska bat kendu... Baina mina hartu dut hortzetan.

Gero, paper guztia altxatu dut lurrean zu-tunik egonda ailegatzen nintzen lekuraino. Ikaragarri itsatsita dago, eta marrazkiak go-zatu egiten du! Lepoa estututako buru ho-riek, eta erraboila begiok, eta mandaz man-da baldar dabiltzan onddo horiek intziri egiten didate mespretxuz!

Askok haserretzen ari naiz, ez egitekoren bat egingo dut. Leihotik salto egitea ariketa fisiko miragarria litzateke, baina barroteak sendoegiak dira saiatu ere egiteko.

Gainera, ez nuke egingo. Jakina ezetz. Ondotxo dakit halako urrats bat ez dela itxurosoa eta txarto interpreta litekeela.

Leihoetatik begiratu ere ez dut egin nahi... Dena emakumez beterik, guztiak narras, eta ze arin gainera.

Paper horretatik atera ote dira guztiak, ni bezala?

Baina orain ondo lotuta nago, ezkutatuta eduki dudan sokarekin... Ni ez naute, ez, hain erraz eramango errepide horretara!

Gaua datorrenean, berriz ere itzuli egin beharko naiz marrazkiaren atzera, eta hori gogorra da!

Hain da atsegina kanpoan egotea, gela handi honetan, eta narras ibiltzea, bueltakak, nahierara!

Ez dut kanpora joan gura. Ez naiz joango, Jenniek esan arren.

Ze, kanpoan, lurretik egin behar da narras, eta dena da berdea, eta ez horia. Baina hemen suabe-suabe egin dezaket narras zoruaren gainean, eta sorbalda justu-justu sartzen zaidanez horman zeharreko orban honetan, ezin naiz desbideratu.

Ene, John atean dago eta!

Alferrik da, mutila, ezin duzu zabaldu!

Hori da hori deitu eta atean jo beharra!

Orain aizkora eske dabil oihuka.

Lastima litzateke ate eder hori botatzea!

«John, maitea! —esan dut ahotsik goxoenaz— Giltza behean dago, ate nagusiaren ondoan, zuhaitzaren hosto baten azpian!».

Horrek isilik eduki du tartetxo batez.

Gero esan du, oso-oso apal, «Zabaldutea, laztana!»

«Ezin dut», esan dut. «Giltza behean dago, ate nagusiaren ondoan, zuhaitzaren hosto baten azpian!»

Eta gero berriro esan dut, hainbat aldiz, oso goxo eta astiro, eta hainbeste aldiz esan dut, non ikustera joan behar izan den, eta hartu du, jakina, eta barrura sartu da.

Atean geratu da, izoztuta.

«Zer gertatzen da? —egin du aldarri— Jainkoarren, zertan zabilta!».

Jarraitu dut narras, baina sorbaldaren gainetik begiratu diot.

«Atera egin naiz azkenean —esan diot— zu eta Jennie gorabehera. Eta paper gehiena altxatu dut, eta, beraz, ezin nauzu berriro sartu!».

Eta zergatik galdu ote du gizonak konortea oraintxe? Ziplo erori da, eta nire bidean trabeska, gainera, halandaze gainetik pasatu behar izan naiz buelta bakoitzean bertara ailegatzean.







***Hormako paper horia:***  
**Teilatupeko**  
**emakume(ar)en**  
**isileko garrasiak<sup>1</sup>**

Saioa Ruiz - Amaia Serrano

---

1 Bihoazkie gure eskerrak María Felisa López eta Borja Ariztimuñori, artikulu honen lehen zirriborroari egingadako ohar eta ekarpenengatik. Esan gabe doa lan honetako interpretazioen erantzukizun osoa gurea dela.



Charlotte Perkins-Gilman<sup>2</sup> (1860-1935) funtsezko irudia da XIX. mende amaierako Estatu Batuetako testuinguru historiko zein kulturean. Idazle gisa, fikziozko istorioen zerrenda luzeak haren ibilbide literario oparoa agerian uzten du eta, aldi berean, teoria feministen inguruko hainbat lan eta idazkik Ipar Amerikako viktoriar garaiko emakume pentsalari eta aurrerakoien sinbolo bilakatu dute.

Gainerako feministen aldean, emakumeen boto eskubidea defendatzetik haratago, Charlotte Perkins-Gilmanek haien bizi-askatasun eskubidea aldarrikatzen zuen, bai eremu publikoan eta baita pribatuan ere. Zentzu horretan, gizarteak finkatutakoaren kontra, gizon-emakumeen lan-banaketa tradizionala aldatzeko proposamena izan zen Charlotte Perkins-Gilmanek mugimendu feministari egin zion ekarpen nagusietako bat. Zaletasuna eta aktibismoa konbinatuz, luman aurkitu zuen bere pentsamoldea zabaltzeko eta instituzioak aldatzeko baliabide sendoa. Baina ibilitakoa erraz suertatu ez, eta, gainera, horren trukean jaso beharrekoa ez zen batere samurra izan.

---

2 Hitzazurre biografiko hau osatzeko Victoria Rosado Castillok (1996) egindako sarreraren oinarritu gara (irakurleak bertara jo dezake Charlotte Perkins-Gilmanen bizi-gehiago sakontzeko).

Charles Walter Stetson margolariarekin ezkondu zenean hasi zen gainbehera. Garrantzirik gabeko urduritasun zantzua depresio sakon bilakatu zitzaion alaba Katharine jaio ostean, eta orduan hasi zen S. Weir Mitchel doktorearen tratamendua jasotzen. Hark agindu zizkionak bat zetozen orduko gizarte tradizionalak emakumeari egotzita-ko ama eta etxeakoandre funtzioekin. Beraz, sei astez bizimodu ahal bezain etxe-koiena egiteko adierazi zion, baina, bereziki, bere bizitza osoan zehar luma eta arkatza erabiltzea debekatu zion.

Weir Mitchel doktoreak sustatutako «atseden-hartze» izeneko sendabide famatuaren emaitza katastrofikoak, eta Charlotte Perkins-Gilmanek bere hezur-haragietan sufritutako esperientzia *Hormako paper horia* (1892) izeneko ipuinean jaso zituen urte batzuk geroago. Ipuineko protagonista orduko emakumearen irudikapena da, eta *Hormako paper horia*, gizarte hartako pentsamoldeari antzemateko lagin adierazgarria da oraindik, mende bat igaro izanagatik ere.

Fikzioaz ari garela bistakoa den arren, narrazio horretan topatzen ditugun jarre-  
rek gizonen botereak markaturiko erreali-  
tate batean dute funtsa, eta, ildo horretan,  
gure asmorik behinena *Hormako paper*

*horiaren azterketa egitea da, XIX. mendeko emakumeen sexualitatean eta gorputzaren balioespenean oinarrituz, batik bat. Irakurlea berehala jabetuko da narrazio horrek hainbat irakurketa ahalbidetzen dituela, kontakizunak ezaugarri bereziak baititu, finkatutako arauetatik, normala zen jarreatik kanpokoak.*

### **1. Ibilbide historikoa: gorputzari buruzko eta emakumeen zapalkuntzaren inguruko hausnarketa orokorrak**

Filosofiaren sorreran bertan topa dezakegu gogo gorputzetik bereizteko joera. Platonek eta bere jarraitzaileek gorputza kartzelaren antzeko elementutzat hartu zuten, eta orduan hasi zen *gogo/gorputz* binomioaren bidez irudikaturiko dualismo antropologikoa.

Banaketa berbera aurkituko dugu cartesian planteamenduak bere egindako diskurtso arrazionalistan ere. Descartesek, norbanakoaren identitatea eraikitzean, pentsamenduaren lehentasuna azpimarratu zuen, gorputzaren kaltetan.

*Gogo/gorputz* bereizketak (determinatua den) naturaren eta (libreki eraikitako) kulturaren arteko banaketa ezartzeko balio zuen. Pentsaera moderno-ilustratuak berezko zuen kontzeptuaz ari gara: gorpu-

tzaren ezaugarriek ez dute haren osaeran garrantzirik eta subjektua «kontzientzia pentsalaria» da.

XVIII. mendetik aurrera, zientziaren ikuspuntu «naturalista»-ren aurrerape-  
nekin bat, gorputzak protagonismo han-  
diagoa hartu zuen. Kontrako nozioa garatu  
zen hain justu, gizabanakoa ezeren gainetik  
gorputza zela pentsatzen zuena, eta psikea  
fisikoaren ondorio zelako ustea nagusitu  
zen. Joera biologizista hori XIX. mendean  
zehar zabaldu zen eta emakumeei ondo-  
rio kaltegarriak ekarri zitkien. Hain zuzen  
ere, testuinguru horretan ulertu behar  
da Charlotte Perkins-Gilmanen *Hormako  
paper horia* (1892) narrazioa: XIX. mende-  
ko emakumeengan zapalkuntzak izandako  
ondorioen adibide moduan. Emakumeei  
histerizazioa egotzi zitzaien beren kontrol  
faltagatik, eta, beraz, adin txikikoak bezala  
eta gizonezkoen menean —bereziki sena-  
rrarenean— bizi behar zuten. Ideia ustez  
natural hori gizartean errotzearen ondo-  
rioz, genero-kategoriek emakumeen eta  
gizonen arteko ezberdintasuna ere adie-  
razten zuten, bai alderdi psikologikoan,  
bai sozialean edota kulturean. Bestalde,  
sexu-kategoria faktore biologiko, anatomi-  
ko eta naturalekin erlazionatzen zuten.  
Horrela, gizona «sexu adimentsu» bihur-

tu eta emakumea baino maila altuagoan kokatu zen.

Zapalketa «logiko» horren testuinguruan, emakumeei zail zitzaien bizitza soziala izatea, haien ingurua senitartera murrizten baitzen. Are gehiago, gizonezkoek finkatzen zizkieten haien rol, izaera, desira eta berezko ezaugarri oro eta zehaztutakotik at zegoen zeinahi jarrera pentsaezina eta onartezina zen.

Gaur egun, askorentzat jakina da naturak ez duela erabakitzen sexu bat bestea baino hobea dela eta, hortaz, berez gailentzen den sexurik ez dagoela (Wittig, 2006 [1992]: 22-23). Aitzitik, sexu menderatua eta menderatzailea izan, badira, eta sexuaren kategoria hori sortzen duen arrazoia zapalketa bera da, eta ez alderantziz.

Diferentzia «natural» horiek gizon-emakumeen arteko berdintasuna lortzeko borroketan soilik egiten dira ikusgarri; ondorioz, sistema horren partaide sentitzen ez direnen ikuspuntuak moduren batean ala bestean aurkezteko gizartearen zirrikituak baliatzea da aukeretako bat. Ikus ditzagun, beraz, narrazio horretako protagonistaren bidez, XIX. mende amaierako gizartearen arrakaletako batzuk.

## **2. Emakumeen garapen oso eta librerako zailtasunak: gorputza/etxea-kartzela**

*Hormako paper horia* kontakizuna joera biologizista nagusi zen garaian kokatuta dago, hots, gizaki bakoitzari egokitu zitzaion gorputzaren araberrako rol sozialak bete behar zituen aroan. Modu horretan, gizabanakoak jarrera batzuk onartu eta beste batzuk baztertu behar izan zituen. Berehala ikusiko ditugu planteamendu horrek emakumeengan izandako ondorioak.

Nortasuna bestearen arabera osatzen bada, ulergarria da garai hartako emakumeek beren rola zalantzan jartzeko eta identitatea modu autonomoan eraiki ahal izateko zailtasunak izatea, bizitza sozialean parte-hartzea murriztua baitzuten. Gizonek esparru publikoan aritzeko eskubidea zuten (ezkontzatik kanpoko erlazioak haiei soilik onartzen zitzaizkien), eta horrek nortasun propioa eratzeko aukera ematen zien. Emakumeek, aldiz, gizarte patriarkalaren rola bete behar zituzten eta, familiaren eginkizun-aukerak ugalketara mugatzen zirenez, ugalketa-objektu bihurtu ziren. Ondorioz, gizon-emakumeek euren gorputzekin harreman ezberdina dute, eta horrek askotan eramango ditu emakumeak bere gorputzaren preso sentitzera.



Foucaulten bidez, sexualitatearen historiara gerturatu eta giltzarri diren bi une daudela konturatuko gara: «bata, XVIII. mendea, debeku handien garaia, ezkontideen arteko sexualitate heldua soilik onartzen zen aldia, gorputzarekin erlazionaturiko oro ekiditen zena; eta, bestea, XX. mendea, apurketa izan zela ezin esan daitekeen arren, kurbaren inflexio izan zena. Momentu hartan errepresioaren baliabideak leuntzen hasi ziren eta premiazko galarazpen sexualetatik ezkontza aurretiko eta kanpoko erlazioekiko tolerantzia erlatibo batera igaro zen»<sup>3</sup> (1987: 140). Perkinsen narrazioa, baina, Foucaultek adierazitako kontrol sozialaren barealdia baino lehenago agertu zen. Garai hartan gizarteak finkatutakotik at zeuden jarrerak arazo fisiko edo psikologikotzat hartzen ziren, hermafroditismoa edo ninfomania jo izan diren bezala. Emakumeen sexualitatea arautzeak edo medikuaren bidez kontrolatzeak patologizaziorako<sup>4</sup> bidea ireki zuen.

---

3 Aipuen euskarazko itzulpen guztiak gureak dira.

4 Bienvillek bere *La Nymphomanie ou traite de la fureur utérine* (Amsterdam, 1771) obran ninfomanoak eta lesbianak berdintzat jotzen zituen: «biek ala biek dute gehiegizko plazera izateko gaitasuna, hala autoerotismoaren bidez nola gizonarekiko lehian» (*apud* Fiochetto, 1993: 98).

Hala azaltzen dute *Sareinak* taldeko kideek ere:

(...) XIX. mendearen amaieran Industrializazioa eta Aro Modernoaren hasierarekin sexu-jardun hauen patologizazioa etorri zen: bekatu eta delitu izatetik gaixotasun izatera pasatu ziren homosexualitatea eta lesbianismoa. Alde batetik, medikuntzak «normala» zer den esan zuen, eta beste alde batetik, femeninoa/maskulinoa eta heterosexuala/homosexuala dikotomiak sortu zituen (Alvarez et. al., 2010: 89).

Postestrukturalistek darabilten identitate kontzeptuaz baliatuz, nortasuna eraikitzea etengabeko prozesu bat dela iruditzen zaigu; horregatik aldatzen da *Hormako paper horiako* narratzailearen identitatea narrazioaren hasieratik amaierara bitartean (edo, gutxienez, agerikoago egiten da). Modu horretan, pentsa liteke narratzaile protagonistak hormako emakume horien islaren bidez eraikitzen duela bere nortasuna, ispilu joko baten bitartez, alegia.

Narratzailearen gatazka gertatzen deneko lau paretez gain, narrazioko etxea extragorputza edo kaiola dela esango genuke, bere baitan preso dagoen eta ukatua den gorputza giltzapetzen duena, hain zuzen.

Kartzela horrek Jennie etxeko lanak egitera makurtzen du, eta narratzailea emakume eta emazte zintzo izatera behartzen. Horrela, etxea, gorputza otzantzen duen espazio bihurtzen da, eta psikiatriko baten antza hartzen du.

Arauen aurkako edozein jokabide erotzat jotzen zen garaian, gogoaren bidez emakumeek kontrolatu ezin zuten gorputza sendatzeko medikuek eskaintzen zuten bide bakarra giltzapean gordetzea zen. Horregatik, ez da halabeharra kontakizuneko narratzailearen senarra —baita anaia ere— mediku izatea. Johnek izaki gaixo gobernaezin baten antzera tratatzen du emaztea, etxeko lanak betetzeko gai ere ez den eta zaintza behar duen neskatxa baten modura. Gizonak jarrera murriztaile eta arauemailea hartzen du. Emaztea minimizatu egiten du, une batean zeharka tuntuna deitzeraino («txoritxo bihotzekoa»<sup>5</sup>, 14 / «little goose», 649), bere burua hobetzat balu bezala. Ez da harritzekoa hala gertatzea, zeren eta, arestian azaldu dugun bezala, «garai hartako corpus zientifikoak ezberdintasun sexuala garapen ebolutibo bihurtzen [bait]zuen. Horixe bera da Lombroso hi-

---

5 Narrazioaren euskarazko pasarteetan zehaztutako orrialdeak edizio honi dagozkio.

gienista ezagunaren kasua: garapen mailan emakumea, gizonagandik baino, animalia edo haurrengandik gertuago dagoen izaki moduan definitzen baitu» (Clúa, 2008: 31).

Narrazioan hainbat menderatze-erlazio bereiz daitezke: alde batetik, Johnen eta narratzailearen artekoa (irudizko gaixotasunak eraginda), eta, bestetik, Johnek bere arrebarekiko duena (haren emaztea zaintzeko eskaerari uko egiten baitio arrebak, eta horrek Johnen porrota adierazten du, hein batean); era berean (agian lotura ahulago batez), narratzaileak paretako emakumearengan duen nagusitasunak sortzen duena (bera kontrolatu nahian eta keinu zein mugimendu guztiak ulertu nahian), bai eta Jennierekikoa ere («Jennie jatorra da eta bakarrik uzten nau hala eskatzen diodanean», 18). Azkenik, hormako emakumeak narratzailearen gainean erakusten duen boterea dugu, beharbada modu inplizituagoan Jennie eta Johnekin ere erabiltzen duena («Zelatan egon natzaio Johni, bera konturatu gabe; sartu izan naiz gelan aitzakia inozoekin, eta behin baino gehiagotan zeri eta *paperari begira* harrapatu dut! Eta Jennie ere bai. Behin Jennie harrapatu nuen esku bat paperean jarrita», 28). Halarik ere, paretako emakumea narratzailearen islatzat hartzen badugu, azken erla-

zio hori autokontrolerako gogo gisa interpreta dezakegu.

### **3. Emakume bilakatzeko prozesua<sup>6</sup>.**

#### **Gorputzaren autokontrola.**

Narrazio guztian zehar agerikoa da gorputzaren autokontrolari ematen zaion garrantzia. Kontuan hartu behar dugu narraziooko pertsonaia nagusiek erdi-go mailako testuinguru sozialeko senar-emazte bikoitea osatzen dutela, eta giro horretan portaera egokien eta desagokien arteko mugak zeharo definituak zeudela.

Gai hori aztertzeke bi ikuspegi baliatuko ditugu: alde batetik, gorputzaren gaineko ezagutza ezari dagokiona, eta, bestetik, emakume-protagonistak bizi duen barne-gatazkari dagokiona.

#### **3.1 Gorputzaren eta beronen erreakzioen ezagutza eza**

Natalie Angierrek gogorarazten digun bezala, «greziar medikuek (...) pentsatzen zuten giza gorputza funtsean unisexuala zela eta sexu bakoitza bestearen ifrentzua zela. Antzinarokoek organo maskulino

---

6 Simone de Beauvoiren ideia gure eginez, pentsatzen dugu emakumea ez dela hala jaiotzen, izatera iristen dela baizik.

eta femeninoen arteko homologia agerian utzi zuten» (2000: 57). Ideia horretatik abiatuta, Angierren ustez, emakumearen gorputzak jakingura sor dezakeen modu berean, mesfidantza ere eragin dezake; oro har, urriagoa baita haren gorputzaren ezagutza, gizonarenarekin alderatuta ezaugarri batzuk ezkutuagoak daudelako. Beste desberdintasun batek ugaltzeko gaitasunarekin du zerikusia. Emakumeek, umetokia<sup>7</sup> edukitzeagatik, arazo biologikorik ez badute bederen, sortzeko gaitasuna dute. Baina, aldi berean, animalien bulkaden antzeko erreakzioak edukitzea leporatzen zaie. Platonek<sup>8</sup> zioenez, emakumezkoengan umetokia umeak sortu eta egiteko desiraren grinak menperatutako izakia da.

---

7 Angierrekin ados gaude argitzen duenean umetokiak ez duela definitzen «emakumea filosofikoki, biologikoki, ez eta etimologikoki ere. Emakume batek ez du umetokiarekin jaio behar emakume izateko, ezta hura mantendu beharrik ere hala izaten jarraitzeko. Ez dugu umetoki-gurtzaren atzipean erori behar, ezta gizonak umetokiagatik bekaiztuko direnik espero behar ere» (2000:100).

8 José María Pérez Martelen arabera, *Timeo* gutxi gorabehera k.a. 360. urtean idatzia da, *Filebo* eta *Las Leyes* baino lehenago, Platonen obren garai berantiarrean, beraz (2003: 16). Garrantzitsu deritzogu lanaren idazketa data adierazteari, ideia neoplatonikoak mendeetan zehar errepikatu direlako.

Beraz, antzinaroko greziarren ikuspegia-  
ren arabera, uteroa<sup>9</sup> gorputzaren barneko  
zer mugikorra eta aldakorra da, emaku-  
meari barne desoreka sorrarazten diona.  
Aldi berean, emakumea bere buruaren  
jabe izateko gaitasunik gabeko animaliatzat  
hartuko da, kontrolatu beharreko izaki-  
tzat, alegia. Zentzu horretan, adierazgarria  
da Erdi Aroan nagusitu zen mentalitatea:  
emakumearen desoreka emozionala justi-  
fikatzen, deabruaren eraginak haren gor-  
putza menperatu zuela zioten.

Perkins-Gilmanen kontakizuneko na-  
rratzailea, desoreka emozional hori duen  
emakumea da. Erditu ondoko egoeran,  
baldintza soziokulturalak eta biologikoak  
uztatu egiten dira. Hala ere, diskurtso he-  
gemonikoak alderdi biologikoa bakarrik  
nabarmendu du. Ikuspegi horren arabera,  
deskompentsazio hormonal handia du ema-  
kumeak, umetokiaren handitze-uzkurtze  
mugimenduen ondorioz. Izan ere, ideologia  
horren talaiatik, egoera horretan, ondorio  
fisikoak ez ezik, emakume bakoitzak des-

---

9 «Hipokratesek uste zuen organo hori [umetokia] ema-  
kumearen gorputzean zehar higitzen zela, eta horrek  
eragiten zituela hainbat gaitz fisiko, mental eta moral  
(...) Hipokratesen akats irrigarriak giza gorputzaren di-  
sektzioa debekatzen zuten lege eta erlijioen ondorio zi-  
ren» (Angier, 2000: 95).

berdin bizi dituen gorabehera emozionalak ere jasaten ditu, gorputzaren erreakzioa zein izango den ere ez dakiela. Desoreka emozional hori, analogiaz, hormako pape-rean bertan islatzen da, marrazki mugikor eta gorabeheratsuaren bidez. Ildo horretan, emakume narratzailearen jarrera esanguratsua da: «Ez dut ezer behar negarrez has-teko, eta negarretan nago denbora gehie-nean» (18). Baina bere gizarte-mailako bati dagokion bezala, senarraren aurrean por-taera egokia erakutsi behar du eta barrenak lasaitasunez hustu ezinean sentitzen da: «(...) negarretan nago denbora gehi-enean. Jakina, ez Johnen edo beste inoren aurrean, bakarrik nagoenean baino» (18).

### **3.2 Desirak asetzeko ezintasunak eragindako barne-gatazka: sexuaren plazera eta idazketa-/ irakurketa-plazera**

Desirak asetzeko ezintasun horren jatorria, errepresio gogor batek sortutako estutasu-nean dago. Itomen horren froga adierazga-rrienetakoa narratzaileak horma-paperean proiektatzen duen irudietako batean ageri da: lepotik helduta eta begiak ateratzear dituen emakumearen irudian, hain zuzen ere. Larritasun egoera horrek sustrai bikoi-tza izan dezake:



- Erditze ondoko egoerari egozten zaion desoreka emozionala isilarazi beharra, portaera egokiak etengabe eskatzen dion bezala. Zentzu horretan, narratzailea saiatzen da pentsatu eta sentitzen duena transmititzen, baina Johnek isilarazten du, bere egoeran pentsa ez dezan esanez.
- Narratzailearen ondoeza eta ezinegona bideratzeko inolako irtenbiderik ez izatea. Pentsatzen eta sentitzen duena idatziz jarri nahi duenean ere, debekatu egiten diote.

Jo dezagun idazle klasikoetara berriz ere. Aurretik aipatu ditugun Hipokratesen (ik. 9. oin-oh.) eta Platonen oharrei, beste hau gaineratu diezaiokegu: «uteroak, bere garai emankorrenetik luzaroan antzu jarraitzen badu, modu arriskutsuan narritatzen da; gorputz barnean astindu eta aztoratu egiten da, arnasbideak oztopatzen ditu, inspirazioa eragozten du, gorputza mota guztietako gaixotasun eta estualdien menpe utziz» (Platon, 91C). Antzinaroko medikuek erditu ondoko gaitzak «sendatzeko» aplikatzen zituzten irtenbide batzuei buruzko aipamenak ere baditu Platonek: «irtenbidea utero mugikor aztoratua jatorrizko egoera naturalera itzularaztea zen: erlazio sexualek, eskulanez eta haurdun-

diek buruko sukarrak lasaitzen laguntzen zuten» (91C).

Garai horietan, plazer oroaren debekuari (idazketa eta irakurketarena barne) gorputzari buruzko ezjakintasuna gaineratu behar zaio. Horren ondorioz, uste zen emakumeek ez zutela orgasmoaren sentsazioa ezagutzen. Narrazioari erreparatzen badiogu, autoerotismoa praktikatzeari ekiten diola iradokitzen duten zenbait erreferentzia daude. Narratzaileak argi esaten du denbora luzea ematen duela logelan bakarrik («Eta orain nahikotxo egoten naiz bakarrik», 18), etzanda («(...) eta luzaroan egoten naiz etzanda», 21), masturbazioa praktikatzeko momentu aproposa azpimarratu nahi balu bezala. Gainera, kontsonante sudurkarien errepikapenak eta mugimendu zirkularren<sup>10</sup> araberako keinuen adierak ideia hori indartuko lukete: «Nola egin ote zuen, eta nork, eta zertarako? Buelta, eta buelta, eta buelta... Buelta, eta buelta, eta buelta... Zorabiatu egiten nau!» (30-31) / «I wonder how it was done and who

---

10 «Platonek azaldu zuen psikea esfera bat zela. Carl Jung-ek biribila niaren sinbolo dela (...) Bularra da gorputzak biribilari egiten dion gorazarre nabarmenena. Mendeetan zehar, giza bularra gauza borobil ezagun eta desiragarri orekin alderatu izan da» (Angier, 2000: 146-147).

did it, and what they did it for. Round and round and round –round and round and round— it makes me dizzy!» (654).

### 3.2.1. Sexuaren plazera

Berreskura dezagun emakumeen histerizazioari lotzen zaion gaia. Sigmund Freudek (1972 [1895]) histeria ikertu zuen. Lan-  
du zituen kasuetatik ondorioztatu zuenaren arabera, histeria ez da burmuineko gaixotasun organiko bat, baizik eta ondorio somatikoak dituen pasio-nahasmena. Eta horrek sortzen dituen efektuen artean mututasuna, paralisia, itsutasuna, zorabioa, buruko mina, etab. zerrendatzen ditu.

Histeria emakumeari lotu izan zaio hitzaren jatorritik beretik. Izan ere, etimologiari helduz, greziar erroko *hystera* hitzak «uteroa» esan nahi du. Asegabeko desira sexualarekin (gura inkontzientea gehienetan) erlazionatzen da, eta hori «irentzedo kastrazio-sentimendua» deritzanari lotzen zaio. Subjektu bat, edozein gogobetetze partzialen aurrean erreprimitzen denean sortzen da. Eta horrek sortzen dituen erreakzioak, besteak beste, nerbioak eta kexa dira: «(...) ikaragarri milika eta kexati bihurtzen ari naiz» (18), esaten du narra-tzaileak. Emakume hau gizarteak inposatzen diona onartzera mugatzen dela dirudi.

Idea hori, narratzaileak kontakizunaren hastapenean formulatzen dituen galdera erretorikoetan islatzen da. Bere egoeraz jabeturik, nolabaiteko etsipen sentsazioa transmititzen du: «Eta, zer egingo duzu horren aurrean?» (7); «Baina, zer egingo duzu?» (8). Indarrrik gabe sentitzen da bere nahien eta beharren aldarrikapena egiteko, haren senarrak jada erabaki baitu horiek guztiak desegokiak direla. Hala ere, errepresio horrek eragiten dion ondoeza askatzeko irtenbide bat aurkitzen du: ezkutuan bada ere, idaztea. Eta hari ekiten dio, pentsatze —eta idazketa— jarduerak debekatu dizkioten arren. Protagonistak idazketarako grina gordetzen du bere baitan eta horrek sortzen dion plazerari ez dio uko egingo. Idazketa behar patologiko bilakatzen da, beharra partzialki baino ez ase arren; izan ere, idazketa ezinbesteko zaio eremu pribatuan gelditzera kondenatzen duen patu biologikoari aurre egiteko eta egonezina kanalizatzeko. Baina idazteko debekua- ren oinarrian arrazoi argia ezkututzen da: norberak uste eta sentitzen duena esateko gaitasunak, hau da, adierazteko askatasunak, gizarteak definitzen eta sostengatzen dituen zutarriak kolokan jartzeko ahalmena dakar. Horregatik, ordena soziala ziurtatzeko, kontrol-ezarpena bultzatzen

da (Sanfeliú, 1996: 89). Foucaultek adierazi bezala, debekatua den horri buruz hitz egiteak boterearekiko jarrera kritiko batera(ntz) lerratzea ekarriko luke, legea urratzearekin batera (1987:13). Zentzu honetan, esanguratsua iruditzen zaigu narratzaileak bere senarraz mintzatzean baliatzen duen *queer* hitza, edota, tonu ironikoan, ezkontza-sistemari buruz dioena: «Johnekin barre egiten dit, jakina, baina hori espero izatekoa da ezkon bizitzan» (7).

### 3.2.2. Irakurketa-/idazketa-plazera

Idazketa-prozesuaren bitartez, protagonistak bere egonezina lasaitzeko (edo zenbaitetan, areagotzeko) baliagarri zaion espazio sinboliko bat eraikitzen du. Eta espazio horren gauzatzea ikusten da logelaz jabetzen denean, narrazioaren amaieran. Orduan, emakumearen barne gatazka idatzi nahi eta ezin horretan fokalizatzen da: «Debekuak debeku, bolada batean idazten jarraitu nuen; baina *neka-neka* eginda uzten nau...» (8); «(...) hau paper hila baino ez da, eta arindu ederra nire gogoarentzat» (7). Agerian geratzen da idazte-ekintzaren balio paradoxikoa, eta, aldi berean, barne gatazkarekiko analogia erakusten da. Barrera arintzeko aukera ematen dion idazketa arazgarri horrek nekatu egiten du, ez-

kutuan egin behar duelako, gaixotasuna, besteak beste, idatzi nahi izateari leporatzen baitiote.

Zergatik bilakatzen da idazketa hain ekintza garrantzitsu? Bada, bizi garen mundutik urrundu eta espazio berriak irudikatzeke aukera eskaintzen duelako eta, ildo horretan, emakumeei debekatu zitzaizen irudimenaren mundurako sarrera zabaltzen duelako.

Horma-paperean horrekin guztiarekin lotura hertsia duen irudi adierazgarri bat ageri da: lepoa apurtua duen emakumearena. Lepoa buruaren eta gorputzaren arteko lotura-elementua izanik, proiektzio hori baliatzen du emakumeek gorputzarekin (eta ez gogoarekin) duten erlazioa iradokitzeko.

Gainera, begien sinbologiari erreparatzen badiogu, esanguratsua da ustez narra-tzaileari begiratzen dioten emakume urkatuen begi irtenen espresioa: «[Buruak] Pasatu egiten dira beste aldera, baina orduan marrazkiak lepoa estutzen die eta buruz behera jartzen ditu, eta begiak zuritu egiten zaizkie!» (31). Itotzen ari diren emakumeen begiak dira.

Protagonistak horma-paperearen gaineko irakurketa egiten duenean, horrek sortzen dizkion pentsamendu eta sententzioak egu-

neroko batean idazten ditu. Baina paperak ispiluarena egiten duenez, narratzailearen irudia islatzen da (momentu batean esaten duen bezala, «Paper honetan badaude gauza batzuk nik soilik dakizkidanak», 22). Beraz, paperean ageri dena irakurtzen duen heinean, bere burua aztertu eta irakurtzen du, bere egoeraz jabetuz doa, hau da, diskurtso propio bat eraikitzen du, kanpotik datorrena baztertuz (otzantazuna, menpekotasuna eta isiltasuna ardatz dituena). Horman proiektaturik ikusten dituen lerroen eta berak egunerokoan idatzitakoen artean paralelismorik balego, bere buruaz beste egin nahi lukeela interpreta genezake («(...) eta uhin zalantzagarri babo horien bideari tarte batez jarraitu diozunean, bat-batean uhinok bere buruaz beste egiten dute», 11). Baliteke une horretan bere burua hiltzeko gogoia sentitu izana. Azken batean, zertarako bizi baldin eta diskurtso propio eta, hortaz, nortasun propio baten jabe ez bada? Edonola ere, emakumeak ez du bide hori hautatzen eta gero eta indartsuago sentitzen da.

Monique Wittigek dioen bezala, zentzua (pentsamenduak, desirak...) ikusezina da, baina hizkuntzak, zentzuaren eta idazketaren arteko bitartekariak, barne mundua agerian uzten du. Horregatik, «idazlearen

eginkizuna letretan interesa edukitzean datza; hizkuntzaren zehaztasunarekiko, ikusgarritasunarekiko eta forma materialarekiko ardura erakustean» (2006 [1992]: 93). Narrazioko pertsonaia nagusia nahi beste sentitzera muga zitekeen, ezertan benturatu gabe, baina, idazteko erabakia hartzen du (era klandestinoan bada ere), eta narratzaile bihurtzen da: «Baina moduren batean esan behar dut zer sentitzen eta pentsatzen dudana... Ikaragarrizko arin-dua da!» (21). Aitorpen horren bitartez, bere identitatea, sentimenduak, nahiak etab. zehaztu nahi ditu, garai hartan gutxik ulertuko luketen diskurtsoa eratuz.

Esate baterako, «(...) paper guztia altxatu dut (...)» (36) adierazpenean, horma-papera suntsitzeaz gainera, paper horrek sinbolizatzen duen rolaren deuseztapen metaforikoa ikus daiteke, bertan emakumeak ama eta emazte gisa sufritzen duen zapalketa ispilatzen baita.

Ekintza horrek eta bere ondorioek idazketaren botere sendagarria azpimarratzeko balio dute, eta narratzaileari ni berri eta desiratua eraikitzea errazten dio.



## 4. Sistema hegemonikoaren arraildurak: eromenaren mugak

### 4.1. Horia, zoramenaren argia

Narrazioaren izenburutik beretik bilakatzeko da horia auziaren muin. Horregatik, ezinbestekoa iruditzen zaigu kolore horren inguruko zenbait argibide eskaintzea. Logela deskribatzean, horiak ezinegona eta nazka eragiten dio emakume-narratzaileari eta, hori adierazteko, mespretxu etengabea erakusten du: «Kolorea nahiko nardagarria da berez, eta nahiko badaezpadakoa, eta nahiko sumingarria» (26); «Bizitzan ikusi ditudan gauza hori guztiak gogorazten dizkit... Ez gauza politak, loretxoak, adibidez, gauza hori txar nazkagarriak baino» (29). Horma-paperaren kolore gorrotagarri hori obsesio bihurtzen zaio, haren usaina sumatzeraino: «Baina paperak badauka beste gauza bat ere: usaina!» (29), «Usain horia» (30). Zer ezkututzen du kolore horrek, deserosotasun hori pizteko? Horiak esanahi anitz eta kontraesankorrak ditu: alde batetik, eguzkiaren argiari edo gardentasunari egiten dio erreferentzia. Goethek kolore horren erakargarritasuna azpimarratzen du. Berak dioenez «izate alai, irrikorra du». Beste alde batetik, urrearen tonu horia, plazer eta ohorearen

sinbologiari lotzeaz gain (Ortiz, 2004: 90), aberastasunarekin eta boterearekin erlaziona daiteke. Dena den, ezin dugu ahaztu gaixotasunekin eta heriotzarekin ere identifika daitekeela: «heriotzaldia hurbildu ahala, horituz doan azala» (Chevalier, 1993: 87). Azkenik, Le Heardek *Color Harmony Spectrum* lanean dioenez, horiak «idealismoa eta erakarpina, zalantza eta koldarkeria adierazten ditu» (*apud* Ortiz, 2004: 91).

Nolanahi ere, aproposa iruditzen zaigu Goethek ematen dituen xehetasunei arreta berezia eskaintzea: «[kolore horia] haserregarri gerta daiteke zikina edo, neurri batean, ahuldua denean» (ibid. 90); horrela aurkezten zaigu, hain zuzen ere, logelako papera: «Kolorea nardagarria da, gomitagarria ia; lizuntzen hasitako hori zikin bat, eguzki argiaren joan-etorri geldoak bitxi maiztu duena» (11). Kandinsky margolari errusiarraren iritziak ideia hori indartzen du. Haren ustez, horiak «eromen bortitza irudikatzen du, eta hori argi-ahula jasanezina izan daiteke» (*apud* Ortiz, 2004: 90).

Narratzaileak gelaren deskribapenak egiten dituen zenbaitetan, hormako kolore horia laranja desatsegin bilakatzen dela esaten du. Beste lekuren batean, aldiz, ña-

bardura horixka argiak antzematen zaizkiola aipatzen du: «Laranja motel baina bizia da toki batzuetan, sufre kolore gaixotia beste batzuetan» (12). Le Heardek laranja kolorearen inguruan egindako interpretazioak xehetasun interesgarriak eskaintzen dizkigu: «laranja kolorea maitasun sutsuaren sinboloa da, erreakzio emozional negatiboak eragiten dituena» (*apud* Ortiz, 2004: 88). Hortik abiatuta, ondoriozta ote genezake narratzaileak papereko emakumearenganako maitasunik duenik? Ezen hormako emakumeak borrokatzeko indarra ematen dio, askatasunerako bidea irekitzen. Hortaz, papereko emakumea narratzailearen proiektzioa dela onartzen badugu, bere buruarenganako maitasuna iradokitzeke modu gisa ere interpreta genezake.

Edozein modutan, agerikoa da horma-paperaren koloreak emakumearengan eragin negatiboak dituela (eromena, patologizazioa, etab.). Agian, zapaltzen duen sistema heterozentristari gaitzespena erakusteko modua izan daiteke. Bestalde, hormako kolorea izateaz gain, emakumeak idazten duen egunerokoaren orrialdeak ere (argitaratzeko idatzia ez denez), denboraren poderioz, horitu egingo direla pentsa genezake.

## 4.2. Lerroarteko irakurketa zenbait

Narrazio honen anbiguotasunak beste irakurketa batzuk egiteko aukera ere eskaintzen du, bai testuari orokorrean helduz, baita amaierari dagokionez ere.

Narrazioan zehar aipatzen zaigu Jenniek eta narratzaileak denbora asko igarotzen dutela elkarrekin eta behin baino gehiagotan egin dutela lo batera («Jenniek nirekin lo egin gura zuen... Sorgintxoia hala-koa! Baina esan diot, duda barik, gau batez hobeto atsedean hartuko dudala bakarrik egonda», 34). Jakin badakigu bi emakume euren bizipenak konpartitzeak ez duela, berez, erlazio lesbiko bat adierazten, baina giro gotiko eta bitxia (*queer*) behin eta berriro aurkitzeak bien arteko harreman lesbiko posible bati bidea zabaltzen diola iruditzen zaigu<sup>11</sup>. Jarri dezagun arreta, bestela, adibide honetan: «Gero eta gehiago kostatzen zait garbi pentsatzea» (21) / «It is getting to be a great effort for me to think straight<sup>12</sup>» (652). Esaldia oso esangu-

---

11 Lesbianismoak (euskal) literaturan (baita, oro har, historian ere) izan duen presentziaz jakiteko jo *Desira desordenatuak. Queer irakurketa (euskal) literaturaz* (2010) liburura, batik bat *Sareinak* taldeko kideek idatzitako «Milia balitz lamia... lesbianismoa eta euskal literatura» artikuluko sarrerara (87-103).

12 Hitz hau 1855an dago dokumentatuta antzerki serioari

ratsua da, zuzen pentsatu ezin duela adierazten baitigu protagonistak, horrek esan nahi duen guztiarekin, jakina.

Egia da, halaber, XIX. mende amaieran lesbianismoa ofizialki ez zela existitzen, eta existitzen ez zenaz, noski, ez zen hitz egiten, ezta idazten ere (Juliano & Osborne, 2008: 7). Horregatik, lesbianismoarekiko sentiberatasun ezak zail edo ezinezko egiten du gaiari buruzko zita espliziturik aurkitzea (Sanfeliú, 1996: 10-11). Simonis Sampedroren arabera, «literatura lesbikoa aurkitzeko, askotan ‘palimpsestoaren’ teknikara jo behar dugu: gainjarritako idatzaldiak urratuz eta urratuz joan, ezkutu-tuko muin lesbikoa topatu arte» (*apud* Juliano & Osborne, 2008: 15). Ondorioz, garai horretan ez ziren sentimendu lesbikoak agerian uzten; izatekotan, iradoki besterik ez ziren egiten. Hartara, gizartean onartua ez zenez, erlazioa adiskidetasun huts izan ohi zen edo ezkutuan edukitzen zen.

---

erreferentzia egiteko, antzerki komiko edo herrikoaren kontrakoari, alegia. «Heterosexual» kontzeptua 1941. urtetik aurrera dokumentatzen da. Hala eta guztiz ere, Charlotte Perkinsen garaian adjektibo honek ez zuen zentzu «fisikoa» soilik, adiera abstraktuan ere erabiltzen baitzen eta «izan behar zena» edo konbentzionala zenarekin identifika zitekeen (Online Etymology Dictionary).

Narrazioaren bukaerari dagokionez ere, eszenaren zehaztasunik eza kontuan harturik, interpretazio anitz egin daitezke. Hona hemen gure proposamenak:

- a) Amaiera aldean, bere buruaz beste egiteko ahalegina antzematen zaio emakume-narratzaileari, baina kasu horretan heriotza elementu askatzaile modura ulertu behar genuke. Pertsonaia nagusia orduan jabetzen da, hain zuzen, emakumeek horrelako gizarte batean bizitzeko dituzten benetako zailtasunez. Beraz, paperean irudikatzen den emakumea haren isla dela onartzen badugu, adibide honek bere buruaz beste egiten saiatzen dela pentsarazten digu: «Soka bat ekarri dut hona gora Jennie konturatu barik. Emakume horrek ateratzea lortzen badu eta alde egiten saiatzen bada, lotu ahal izango dut!» (36). Zein izan daiteke, bestela, gordetzen duen sokaren funtzioa?
  
- b) Bestalde, kontuan hartuz emakumeak duen estutasuna idatziz lasaitzen saiatzen dela, zilegi da bere garaipenaz mintzatzea. John negarrez hasi eta zorabiatzen denean (bidenabar, garai hartako gizon baten ezohiko jarrera

da), emakume-narratzailea senarren gorputzaren gainetik iragaten da, irabazi duen gatazka metaforikoki irudikatuz. Izan ere, «Txunditu egin nahi dut» (36) perpausak, narratzailearen helburua agerian uzten du.

- c) Egia da narratzaileak gertatzen denaren gaineko kontzientzia bereganatu duela. Menturaz, kontzientzia hartze horrek badu alde negatiboa, garaiko gizarte-baldintzetara egokitu nahi ez izatearen emaitza eromena baita. Zentzu horretan, esanguratsua da «Jarraitu dut narras» (38) / «I kept on creeping» (656) jarrerak eskaintzen duen interpretazio bikoitza. Batetik, sentsualtasunari eta probokazioari lotutako oldarkortasun eta arauen aurkako erreakzio gisa uler daiteke, izan ere, arrastaka doa (badoa!), erresistentzia eginez. Baina, bestetik, animalia-senaren eztanda-ren adierazgarri izan daiteke. Onartzen badugu senarra gogaitzeko aukeratutako jarrera kontzientea dela, narrazioan espazioa nola erabiltzen den aztertu behar genuke. Pertsonaia nagusia espazioaz jabetzen denetik<sup>13</sup>, bera bila-

---

13 Espazioaren jabetze hori protagonistak egiten dituen

katzen da arauemaile eta, beraz, berak erabakitzen du zein den portaera egokia. Une batean, preso izan duen espazio hori gobernatzeko gaitasuna eskuratu izana Johni begiratzeko moduan islatzen da: «(...) sorbaldaren gainetik begiratu diot» (38).

Ezin dugu baztertu errepresioak eragindako barne-gatazka jasanezin horrek protagonista benetan erotu duenik. Narrazioaren azken lerroetan deskribatzen zaigun emakumearen portaera aski berezia da. Senarrak atea irekitzeko eskatzen dionean, berak ezin duela erantzuten du (giltza leihotik bota baitu). Tentsio handiko momentu horretan, portaera harrigarria erakusten du, eldarnioetan murgilduta balego bezala: «Lastima litzateke ate eder hori botatzea!» (37). Donald E. Hallen (2003) ustez, fikzioa momentu horretan etengo ez balitz, senarra konorteratu bezain laster emakumea eroetxe batean sartuko lukete. Halaber, bukaera horrek kritikarako bideak zabaltzen dituen mezu inplizitu bat

---

biratzeen bidez erakusten da. Gogora ekarriz Platonek psikea forma biribilaz adierazten zuela eta Carl Jungeren iritzi zirkulua «psikearen osotasunaren irudi arketipikoa» dela (Chevalier, 1993: 304), pentsa genezake narratzailea bere diskurtsoaz jabetzen dela.



dakar berekin: protagonistaren senarrak, ustezko gaixotasun hura sendatzeko, garaiko medikuntza-ereduetan oinarritutako prozesuak baliatzen ditu (isolamendua, kontrola, ezereztea), baina porrot egiten du. Ondorioz, sistema oso baten gainbehera aurkezteko balio duen pertsonaia prototipiko bilakatzen da senar-medikua.



# Bibliografía

- Angier, Natalie. 2000. *Mujer. Una geografía íntima*. Madril: Debate.
- Azpeitia, Ana et al. (arg.). 2001. *Piel que habla: viaje a través de los cuerpos femeninos*. Bartzelona: Icaria.
- Chevalier, Jean. 1993. *Diccionario de los símbolos*. Bartzelona: Herder.
- Clúa, Isabel. 2008. «Inventar el vicio: ciencias normativas y erotismos subversivos en el fin-de-siecle», in *Escrituras de sexualidad*, Joana Masó (arg.). Bartzelona: Icaria, 23-41.
- Egaña, Ibon (koord.). 2010. *Desira desordenatuak. Queer irakurketa (euskal literaturaz)*. Donostia: Utriusque Vasconiae.
- Fiochetto, Rosana. 1993. *La amante celeste: la destrucción científica de la lesbiana*. Madril: Horas y Horas.
- Foucault, Michel. 1987. *La historia de la sexualidad*. Madril: Siglo XXI.
- Freud, Sigmund. 1972 [1895]. «Estudios sobre la histeria», in *Obras completas. Tomo I*. Madril: Biblioteca Nueva. Itzultz. Luis López-Ballesteros y De Torres, 39-168.
- Hall, Donald E. 2003. *Queer theories*. Basingstoke, Hampshire: Palgrave Macmillan.
- Harper, Douglas. 2001. *Online Etymology Dictionary*. Online: <http://www.etymonline.com/index>.

- php?search=straight&searchmode=none [kontsulta: 2010-01-29].
- Juliano, Dolores eta Raquel Osborne. 2008. «Prólogo: Las estrategias de la negación. Desentenderse de las entendidas», in *Lesbianas. Discursos y representaciones*, Raquel Platero (arg.) Bartzelona: Melusina, 7-16.
- Ortiz Fernandez, Georgina. 2004. *El significado de los colores*. Mexiko: Trillas.
- Platon. 2003 [~ k.a. 360]. *Ión; Timeo; Critias*. Madril: Alianza. Itzultz. José María Pérez Martel.
- Perkins Stetson, Charlotte. 1892. «The Yellow Wall-Paper», in *New England Magazine* 11 (5). 647-657. Online: <http://digital.library.cornell.edu/cgi/t/text/pageviewer-idx?c=newe;cc=newe;rgn=full%20text;idno=newe0011-5;didno=newe0011-5;view=image;seq=655;node=newe0011-5%3A12;page=root;size=s;frm=frameset> [kontsulta: 2010/02/09].
- Rosado Castillo, Victoria. 1996. «Introducción», in *El empapelado amarillo. La wisteria gigante (texto bilingüe)*. Leon: Universidad de León. Itzulpena, oharrak eta sarrera: Victoria Rosado Castillo. Hitzaurrea: Bárbara Ozieblo Rajkowska, 15-40.
- Sanfeliú, Luz. 1996. *Juego de damas. Aproximación histórica al homoerotismo femenino*. Málaga: Universidad de Málaga.
- Wittig, Monique. 2006 [1992]. *El pensamiento heterosexual y otros ensayos*. Bartzelona/Madril: Egales. Itzultz. Javier Sáez & Paco Vidarte.







# argitaletxea **edo!**

**Euskara.** EDO!-k euskarazko lanak argitaratuko ditu.

**Autofinantzatua.** EDO! diru irabazi asmorik gabeko egitasmoa da. Litekeena da lan batzuk ordaindu behar izatea, baina ahalegina egingo du bazkideen borondatezko lanean oinarritzeko.

**Borondatezko lana.** EDO! Borondatezko lanean oinarritzen da; bazkideak eta lankideak dira proiektua bultzatzen dutenak, eta harpidedunak dira proiektuaren oinarria.

**Adostasuna.** EDO! adostasunean oinarritzen da. Adostasuna da talde lanaren oinarria, eta prozesuek eskatzen duten erritmoen arabera lan egin nahi du.

**Edukiak.** EDO! liburua eta literatura merkantziaren logikatik ateratzen saiatuko da. Edukiei jarriko die arreta, salmentari beharrea.

**Gizarte eragile.** EDO!-k zerbitzu publiko gisa ulertzen du bere lana. Kultur eragile soilik ez, gizarte eragile ere izango da.

**Pentsamendu kritikoa.** EDO! pentsamendu kritikoa eta elkarrizketa sustatzeko tresna izango da.

**Independentea.** EDO! independentea da alderdi politiko, gizarte mugimendu, erakunde publiko eta kultur industrietatik. Diru laguntzak onartuko ditu, laguntza gisa, proiektuaren printzipioak eta lanak baldintzatzen ez dituzten neurrian.

**Kalitatea eta seriotasuna.** EDO!-k egiazko edizio lana egingo du argitaratutako lanekin eta publikazio berme guztiak emango dizkio egileari.







Atseden hartzera behartu dute Jane, logela itogarri batean isolatuta. Hormetako irudi arraroak aztertzen hasiko da berehala. Espero ez zuena aurkitzen duenean, itzulerarik gabeko puntu batera iritsiko da bere bizitza.

Charlotte Perkins Gilman-en narrazio hau erreferentzia saihestezina da iparramerikako literaturan, eta irakurketa feminista ugari eragin ditu.